

Erref. Zkia.- OZ-2021-032

EE.- 2020-00089

B052-2021-00001

**LARRABETZUKO UDALETXEA ERABERRITZEKO OBRAREN OBRA-PROIEKTUA
IDAZTEKO ETA ZUZENDARITZA FAKULTATIBOKO ZERBITZURAKO KONTRATUA,
IRIZPIDE ANITZEKO PROZEDURA IREKI ARRUNTAREN BITARTEZ ESLEITZEKO
ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA.-**

LEHENENGOA.- Kontratuaren Objektua.-

Plegu honen arabera burutuko den kontratuaren objektua Larrabetzuko Udaletxearen erreforma egiteko beharrezkoa den arkitektura proiektua idaztea da, Administrazio-Baldintza Zehatzen Pleguan eta Baldintza Teknikoen Pleguan ezartzen diren betebeharrekin, bi horiek kontratuzko izaera dutelarik. Objektuaren definizioa eta nondik norainokoa Baldintza Teknikoen Pleguetan adierazitakoa izango da. Plegu horretan agertzen den aurreproiektua edo krokisa orientagarria izango da. Proiektua egitearekin batera kontratuaren objektua obraren zuzendaritza fakultatiboa ere izango da, Eraikuntzaren Antolakuntzarako Legean zehaztutako funtzioekin.

Kontratuaren objektuari dagokion CPV nomenklaturaren kodifikazioa: Arkitektura eta Ingenieritza Zerbitzuak: 71000000-8 ; Arkitektura zerbitzuak eta erantsiak 71200000-0; eta eraikinetarako Arkitektura zerbitzuak: 71221000-3.

BIGARRENA.- Udalak behar dituen espazioak solairuka eta euren erabilera.

2.1.- Gutxienezko espazioak.

Larrabetzuko Udaletxean gutxienez honako espazio hauek agertu behar dira. Horiez gain, lizitatzailerek euren ideietan jasotzen dituzten bestelakoak ere agertu daitezke. Horien distribuzioa kontuan izango da.

- ARTXIBOA + lanpostu bat, espazio berberan
- Gizarte Zerbitzuak + Bake epaitegia
- ADMINISTRAZIOA
 - 5 POSTU finkoak (zabalagoak): 3+1 filtro batekin(panela edo....)
 - 5 postu (txikiagoak, agian mahai berberan). (Noizean behin etortzen direnentzako, Euskara zerbitzua, biscaytik,...?)

- Itxaroteko postu batzuk. 2/3 aulki.
- 2 Komun. (publikoa eta langileentzakoa)
- Instalakuntza gela
- Igogailua
- PLENO ARETOA: Gaur egun bezalako tamaina.
- 4 bulego:
 - Alkatetza
 - Idazkaritza
 - TAG
 - Bulego teknikoa (2 lanpostu, aparejadorea eta arkitektoa)
- Batzar gela bat
- Beste gela bat TAG-XXX Bi postukin
- Komun 1
- Gela txiki bi alderdi politikoentzat
- Elkarreentzako gela
- Office
- Komun 1
- ERABILI ANITZEKO GELA HAUNDIA - diafanoa

2.2.- Esleipen-prozedurara Aurkeztu beharreko proposamena.

Proposamen teknikoak dokumentazio hau aurkeztu beharko du: orientazio-aurreproiektutik abiatuta eta BTPn adierazitako azalpenetatik abiatuta, Udalaren inguruko proiektu-proposamena, honako hauek jasoko dituen:

- 1.- kokapen-plano bat.
- 2.- kanpoko fatxaden planoak.
- 3.- eraikinaren barruko erabilera-planoak, solairuen arabera.
- 4.- Proiektu-proposamenaren idatzizko azalpena.

Proposamen teknikoak ezaugarri hauek izango ditu:

A) .- Aurreikusitako espazioen erabilera optimizatzeko eta handitzeko proposamena: 15 puntu. Kontuan izango da proiektua idazterako orduan, besteak beste, udal langilariarekin harremana eta horien parte-hartzea diseinua egiterakoan. Horretarako prozedura azaldu beharko da.

B) Hiri-parkean ezartzea eta irisgarritasun-baldintzak proposatzea, hirigune historikoan eragin txikia izanik. 10 puntu.

C) BTPrekin dagoen orientazio-aurreproiektuak udal-zerbitzuei eta eskatutako instalazioei dagokienez sor ditzakeen arazoak eta kalteak identifikatzea. Horiek konpontzeko proposamenak ere egin beharko dira. 10 puntu.

D) Eraikinaren 3Dko infografiak aurkeztea, barnean hartutako espazioen kokapena eta eraikinaren kokapena adieraziz. 5 puntu.

Proposamena egiteko Larrabetzuko Udaletxeko gaur eguneko instalazioak ikusi daitezket baita eraberritu behar den eraikina ere. Horretarako aurretiazko zita eskatu behar da Udaletxera deituta: 94 455 70 27 telefonoan.

HIRUGARRENA.- Aurreproiektu orientatzailea.-

BTP honen I eranskinean agertzen den aurreproiektua izaera orientatzailea dauka, ez da zertan jarraitu behar, ideia hutsa da. Baina aurreproiektua Udalen beharrianak plasmatzan ditu eta gutxi gorabeherako antolaketa bat adierazten du.